


NERABEEKIN

LANTZEKO

24 TALDE

DINAMIKA



Gipuzkoako lehiaketa

2008-2009



AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Fitxa: HASIERAKO UNEA	5
2. Fitxa: TIPULAREN JOLASA	8
3. Fitxa: UREZKO OHEA	9
4. Fitxa: BOROBILA	10
5. Fitxa: ITSUA ETA GIDARIA	11
6. Fitxa: OLAGARROA	12
7. Fitxa: MUSIKA SAIOAK	13
8. Fitxa: TELEFONO MATXURATUA	14
9. Fitxa: ISTORIOA	15
10. Fitxa: TALDEKO BAIEZTAPENAK	17
11. Fitxa: DADOA	18
12. Fitxa: BURBUILA-BAKARDADEA	19
13. Fitxa: INAUTERIA	20
14. Fitxa: ARRAIN ONTZIA	21
15. Fitxa: TALDE ROLAK	22
16. Fitxa: ERAIKUNTZA	23
17. Fitxa: EGUNEROKOA (bullying-a)	24
▪ Lehenengo egunerokoa	25
▪ Bigarren egunerokoa	28
18. Fitxa: ISPILUA	32
19. Fitxa: TALDEKO BALIO ETA KONTRABALIOAK	34
20. Fitxa: TALDEKO ETA NORBANAKOEN BIZITZA IBILBIDEAK	35
21. Fitxa: TALDE SOZIOGRAMA	36
22. Fitxa: SUPERBIBENTZIA IBILALDIA	37
23. Fitxa: ROL PLAYING	39
24. Fitxa: BIDEO FORUM	40
FILMEEN GIDA	
▪ Billy Elliot	41
▪ ¿A quién ama Gilbert Grape?	42
▪ Barrio	43
▪ Felices dieciseis	44
▪ Fucking Åmål	45
▪ Quiero ser como Beckham	46
▪ El Bola	47
▪ Semillas de rencor	48
▪ El indomable Will Hunting	49
▪ Ciudad de Dios	50
▪ BESTE FILME INTERESGARRI BATZUK	51
TALDE PROZESUETARAKO EBALUAKETA FITXA	
TRESNA / LORPENEN EBALUAKETA	53
Bibliografia	58



Sarrera

Gazte Forum programa burutzen den bitartean material lagungarri gisa erabiltzeko baliagarria da dossier hau. Programa honek gazte talde natural bat eta hezitzaile bat edo talde baten arteko heziketa prozesu bat burutzea planteatzen du. Hala ere material hau Gazte Forum programatik kanpo zein beste egoeratan ere erabil daiteke.

Sei hilabete eta urte bitartean iraun dezakeen heziketa prozesuaren baitan, hezitzaile edo hezitzaileen laguntzaz, lagun taldean, harremanetan... oinarritutako hausnarketa ezberdinak egin beharko ditu gazte taldeak. Horiekin bukatzerakoan gidoi bat idatzi eta bideo muntai bat egingo dute, bertan bideoklip, laburmetrai... moduan euren hausnarketara gertu beharko dutelarik.

Egiten diren hausnarketak, maila orokorrean ez egitea zaintzea izango da garrantzitsuena. Euren talde zein norbanakoen errealitatean pentsatzera bultzatzea bilatzen da bizi etapa honetan hain garrantzitsua den talde bizitzarako pista eta orientabideak aurkitu ditzaten.

Prozesu hori erraztearren jarraian agertzen diren orrietan nerabeekin egiteko 24 dinamika aurkezten dira.

Hauetatik guztiak lehendik egin izan diren antzerako esperientzietan aurrera eraman dira eta nerabeekin egindako giza heziketa lanetan ere.

Lanerako aukera anitza osatzen dute, taldearen hasierako dinamiketarik, errazago eta intentsitate zein sakontasun gutxiago eskatzen dutenetatik, egun bat baino gehiagoko iraupena eskatzen duten intentsitate, sakontasun eta intimitatezko dinamiketara bitarte.

Oso garrantzitsua da beraz dinamika hauek garatzera doan edo doazen hezitzaile zein hezitzaileak fitxa arretaz irakurtzea, dinamika modu egokian aukeratzea eta taldearen une zein errealitateara egokitzea ondo egitea. Bereziki norbanakoen sakontasun eta intimitate gehien eskatzen duten dinamika horiekin.

Dinamikak jarraian agertzen den moduan sailkaturik daude:

A.- Kokapen dinamika, parte hartzea zein prozesuarekiko inplikazioa formalizatzeko, itxaropen eta aukerak azaltzeko...

1.-Hasierako unea.



B.- Taldearen prestakuntzarako dinamikak, girotzeko, ondorengo dinamiketan sartzeko prestatzeko.

- 2.- Tipularen jolasa.
- 3.- Urezko ohea.
- 4.- Borobila.
- 5.- Itsua eta gidaria.
- 6.- Olagarroa.
- 7.- Musika saioak.

C.- Gatazken oinarrian egiten diren eta komunikazioa prozesuetan orokorrean geratzen diren gertakariez ohartzeko dinamikak.

- 8.- Telefono matxuratua.
- 9.- Istorioa.
- 10.- Taldeko baieztapenak.

D.- Norberaren zein talde errealitatean oinarrituriko dinamikak. Aurrekoak baino intentsitate zein sakontasun maila handiagoko dinamikak dira.

- 11.- Dadoa.
- 12.- Burbuila-bakardadea.
- 13.- Inauteria.
- 14.- Arrain ontzia.
- 15.- Taldean betetzen dugun rola.
- 16.- Eraikuntza.
- 17.- Egunerokoa.
- 18.- Ispilua.
- 19.- Taldeko balio eta kontrabalioak.
- 20.- Taldeko eta norbanakoen bizitza ibilbideak.
- 21.- Talde soziograma.
- 22.- Superbibentzia ibilaldia.

E.- Talde zein norbanakoen errealitate oso ezberdinetara erantzun eta hausnarketarako sakontasun maila aldatzea ahalbidetzen duten dinamika orokorrak.

- 23.- Rol playing.
- 24.- Bideo forum.

Dokumentuaren amaieran taldearen errealitatean prozesuaren inpaktua ebaluatzea ahalbidetzen duen indikadore sistema bat atxikirik dago. Geratu diren aldaketak jasotzeko prozesuaren hasieran zein amaieran bete beharreko tresna erraza da. Prozesuaren edozein unetan erabil daiteke. Hezitzaileek bakarrik, zein taldearentzako eragileak izan daitezkeen agenteekin zein taldearekin berarekin ebaluatuturik izan daiteke. Gizarte laguntzaren teorian oinarritutako indikadore sistema bat da.

1.- HASIERAKO UNEA

Dinamikaren sintesia:

Galdera errazak jasotzen dituen fitxa baten bidez, taldekide bakoitzari, norbere burua ezagutzen ematera, taldearekin dituen loturak ezagutzera eta talde prozesu honetan bere espektatibak eman zein gustuko lituzkeen gaiak aipatzera lagunduko diogu.

Zein egoeratarako:

Edozein talde motarentzako.
Edozein talde prozesuren hasieran egin behar da.

Zer lantzen duen:

Prozesuarenganako taldekide bakoitzaren espektatibak jaso.
Taldearen eskaeraren arabera taldean landuko diren gaien zehaztapena.

Garapena:

Fitxen banaketa
Norberak fitxa betetzeko 10-15 minutu
Elkar jartzea
Lehentasunaren arabera taldearen zein gain edo alderdi landuko diren adostea

Denbora:

90 Minutu

Materiala:

Fitxak
Kontratua
Boligrafoak

Kontutan hartu beharreko aldeak

Talde lanaren hasierako unean bagaude landuko ditugun gaiez hitz egiterakoa elkarrekin leialak izatearen garrantzia azpimarratu, taldearen prozesua oinarrituko baitute.
Taldekide guztiek azalpenak emateko denbora kopuru bera edukitzea eta denek euren espektatiba eta lanerako gaiak jaso direla sentitzea.
Momentu egokia da **heziketa kontratua** azaltzeko eta taldekideak sinatzeko.

FITXA ATXIKIRK DAGO



IZENA:

BERTUTE BAT:

AKATS BAT:

ABILEZIA BAT:

MUGA BAT:

KOADRILARI ZER EMATEN DIOZUN:

ZURE KOADRILARENGANDIK ZER JASOTZEN DUZUN:

KOADRILARI ORAIN EMATEN ARI EZ DIOZUN ZER GUSTATUKO LITZAIZUKEEN EMATEA:

ORAIN JASOTZEN ARI EZ ZAREN ZER GUSTATKO LITZAIZUKEEN KOADRILARENGANDIK JASOTZEA:

ZER ESPERO DUZUN PROZESU HONETAZ:

HEZITZAILEEK ZERTAN LAGUNDU ZAITZAKETEN:



HEZIKETA KONTRATUA

Kontratu honek taldekide bakoitza eta hezitzaileak GAZTEFORUM proiektuarekin lotzen ditu eta prozesu honetatik ateratzen diren ekintza guztien funtzionamendua arautzen du.

*Proiektuan parte hartzeak, bere esparruan garatzen diren ekintza guztietan **parte hartzeko konpromisoa** ekartzen du, **hasieratik amaieraraino**.*

*Pertsonarteko zein dinamika, material eta ingurunearekiko **errespetua** denek onartzen ditugun oinarrizko arauak dira.*

***Konfidentzialtasuna** bereziki errespetatzeko konpromezua hartzen dugu. Dinamiketan lantzen dena, parte hartzaile bakoitzak adierazten duena... taldetik kanpora ez da aipatuko. Noreberak berari dagokiona zein bere prozesu pertsonalaz hitz egiteko aukera izango du baina ez ordea besteen berri emateko.*

Sinadurak:



2.- TIPULAREN JOLASA

Dinamikaren sintesia:

Dinamika hau konfiantza giroa sortzeko helburua izateaz gain oso baliagarria da girotze edo hasierako dinamika gisa taldeak alderdi hau lantzeko beharrik ez badu ere.

Zein egoeratarako:

Taldea sortzeko baliagarria da, jendea elkartzeko eta kooperatiboa da.

Zer lantzen du:

Talde konexioa, konfiantza eta kontaktua.

Garapena:

Hasteko, taldeak boluntario bat aukeratu beharko du. Boluntario hori jolaseko laboraria izango da; gainerako taldekideek berriz tipula osatuko dute. Tipula osatzeko taldekide guztiek gorputz adarrez baliaturik elkar lotuko dira azal anitz dituen tipula baten gisa. Tipula prest dagoenean jolasa hasiko da. Laborariaren helburua tipula zuritzea izango da, azal guztiak zuritzea. Lehen azala kentzen lortzen duenean, pertsona hori bigaren laborari bihurtuko da eta aurrenekoari lagunduko dio bere lanean. Modu honetan zuritutako azal bakoitza laborari bihurtuko da, azal bakarra dugun arte. Jolasa nahi guztietan errepikatu daiteke. Talde handiegia badugu bi tipula osa ditzakegu. Dinamika amaitzerakoan bitako sentipenak elkarbanatuko dira.

Denbora:

15 minutu

Materiala:

Ez da beharrik

Kontutan hartu beharreko aldeak

Behin baino gehiagotan errepikatu daitekeen arren esfortzu fisiko handia eskatzen du eta nekagarria izan daiteke. Oinetakoak kentzea gomendatzen da minarik ez hartzeko. Kontuz indar handia izan dezaketen gazteekin!



3.- UREZKO OHEA	
Dinamikaren sintesia:	
Aurrekoaren gisa jolas hau ere motza da. Konfiantza lantzeko erabili daiteke baina edozein saioko girotze jolas moduan ere.	
Zein egoeratarako:	Zer lantzen duen:
Kontaktu bidez erlazionatzeko zailtasuna duten edota elkarren arteko konfiantzarik ez duten horiekin.	Taldeko kideen arteko konfiantza.
Garapena:	
Lau jokalaria elkarren artean pega pega eginda jarriko dira lau oinetan. Bosgarrena bizkarrez etzan egingo da alde batera eta bestera leunki mugitzen den "urezko ohe" honen gainean. Taldekide guztiak ohean etzan direnean bukatuko da jolasa.	
Beste aukera: talde handi batekin topatzen bagara ohea manta bilakatu daiteke. Taldekide guztiak zutik daudelarik bi ilera osatuko dituzte eta euren parekoarekin besoak lotuko dituzte. Libre geratzen den jokalaria ileren hasieratik sartuko da osatuko dugun mantara eta guztiok, besoei eraginez taldekidea "manteatuko" dugu ibilbidearen amaierara iristen den arte. Jokalari guztiak pasa direnean bukatuko da jolasa. Dinamika amaitzerakoan bizitako sentipenak elkarbanatuko dira.	
Denbora:	Materiala:
15 minutu	Ez da beharrik
Kontutan hartu beharreko aldeak	
Gure taldean besteen eskuetan jartzeko inolako konfiantzarik ez badago lehenik konfiantzarako beste dinamika batzuk egitea gomendatzen da.	



4.- BOROBILA

Dinamikaren sintesia:

Dinamika erraz eta motza da. Konfiantza eta elkarrekiko kontaktua bultzatzen du.

Zein egoeratarako:

Kontaktu bidez erlazionatzeko zailtasuna duten edota elkarren arteko konfiantzarik ez duten horiekin.

Zer lantzen duen:

Kontaktu fisikoaren bidezko konfiantza.

Garapena:

Taldeko kopuruaren arabera 5 taldekidetako talde txikiak osatuko ditugu. Talde txiki hauetako bakoitzak borobil bat osatuko du, taldekide bat borobil horren barruan kokatuko delarik. Borobila osatzen dutenek elkarren artean pega pega eginda egon beharko dute. Dena prest dagoenean jolasa hasiko da. Barruan dagoen taldekidea bere burua, aurrera, atzera zein alboetara botatzen utziko du eta borobilean dauden kideek bultzada leunen bidez borobileko beste pareten aurka botako dute erdian dagoen "pendulua". Taldekide guztiak txandakatuz joango dira. Dinamika amaitzerakoan bizitako sentipenak elkarbanatuko dira.

Denbora:

15 minutu

Materiala:

Ez da beharrik

Kontutan hartu beharreko aldeak

Kontaktu bidez erlazionatzeko zailtasuna duten edota elkarren arteko konfiantzarik ez duten horiekin.



5.- ITSUA ETA GIDARIA

Dinamikaren sintesia:

Itsuaeren papera betetzeak laguntza ezinbestekoa den posizio batean jartzen gaitu, berez ezin dugu gure kabuz baliatu eta konfiantza eta kontaktua bezalako zentzumenak garatu behar ditugu. Dinamiken honen bidez gazteek laguntza eta ardura rola hartu beharko dituzte.

Zein egoeratarako:

Lagun harremana berria den taldeetarako eta oraindik elkar ukitzeko eta konfiantza garatu ez duten horientzako.

Zer lantzen duen:

Konfiantza.
Gure errealitatearen pertzepzioa modu ezberdinaz.

Garapena:

Taldekide guztiak bikoteka jarriko dira eta eremu zabal batean barrena banatuko dira. Espazio horren baita muga eta oztopoak egongo dira. Bikote bakoitzean itsu eta gidari paperak banatuko dira. Gidari itsuaeren atzean jarriko da eta lagunari eskua sorbaldan jarriko dio honek senti dezan. Gidariak itsuaeren belarran xuxurlatuko du zein bide egin beharko duen eta oztopo eta mugak nola gainditu. Ondoren paperak aldatuko dituzte. Taldekide guztiak posizioen arabera sentsazio ezberdinak esperimendatzeko aukera izango dute.
Dinamika amaitzerakoan bizitako sentipenak elkarbanatuko dira.

Denbora:

30 minutu

Materiala:

Oztopoak: aulkiak, bankuak...

Kontutan hartu beharreko aldeak

Itsuentzako zapiak edukitzea gomendagarria da tranpak ekiditeko.



6.- OLAGARROA

Dinamikaren sintesia:

Ikusitako beste hainbat dinamika bezala jolas hau konfiantza lantzen hasteko oso baliagarria da girotze jolas bezala bereziki. Oso sinplea da.

Zein egoeratarako:

Hasieratik elkar ukitzea oztopo edo traba izan daitekeen taldeentzako.

Zer lantzen duen:

Konfiantza garatu.
Distentsioa bultzatu.

Garapena:

Taldeekideak 5eko taldeetan banatuko dira (nahiz eta gehiago edo gutxiago ere izan daitezkeen). Bata erdian jarriko da eta ingurukoek behatz batez ukituko dute. Erdiko taldekidea olagarroaren burua izango da, begiak irekirik izango ditu eta animalia mugimenduak gidatuko ditu. Ingurukoak olagarroaren hankak izan dira eta behatz puntaren kontaktu fisikoa galdu gabe olagarroaren buruaren mugimenduak jarraitu beharko dituzte. Posizioak aldatzen joango dira. Dinamika amaitzerakoan bizitako sentipenak elkarbanatuko dira.

Denbora:

15 minutu

Materiala:

Ez da beharrik

Kontutan hartu beharreko aldeak

Dinamika burutzeko espazio egoki bat izatea non taldea gustura sentituko den mozketen beldur izan gabe.



7.- MUSIKA SAIOAK

Dinamikaren sintesia:

Dinamika honetan komunikazioa musikaren bidez garatzen da. Hainbatetan taldeak hitzaren bidez komunikatzeko zailtasunak izaten ditu eta beste bide batzuk erabiltzen ditu komunikatzeko. Dinamika honen bidez erabiltzen dituzten mugimendu eta keinuen arabera elkar ezagutzen ikas dezakete eta euren arteko konplizitatea garatu.

Zein egoeratarako:

Egoera guztietarako. Bereziki arrazoia edozein dela ere gutxiago hitz egiten duten taldekideak topatu ditzakegunean.

Zer lantzen duen:

Lengoaia musikalaren araberako komunikazioa suspertu
Elkar ezagutzea bultzatzea.
Gorputzaren lengoaiaren pertzepzioa

Garapena:

Dinamika hau musika estilo erritmo ezberdinak entzun eta partaide bakoitzari inspiratzen dionaren arabera eramaten uztean datza. Ondoren, taldekide bakoitzak gainerako partaideei erritmo eta musika bakoitzarekin sentitu duena adierazi beharko dio, edozein parte errepikatzea izango duelarik komunikazioa hobestu dadin. Oinarrizkoa da bakoitzak bizi dituen emozioak eta gustu musikalak besteei helaraztea. Hein berean taldekideek partaide bakoitzarengandik zer jasotzen duten balora daiteke. Horretarako komunikatzen denarekiko eta bakoitzaren musika gustuekiko balorazio negatiboak ekidin behar dira. Musika zatiak animatzaileak aukera ditzake edota gazteek beraien euren gustuko duten musika proposa dezake.

Denbora:

90 minutu

Materiala:

CD erreproduktorea eta CDak

Kontutan hartu beharreko aldeak

Taldeari musika ekartzea eskatzen bazaio alde aurretik egin beharko da. Taldearekin bakarka egon gaitzkeen toki batean garatzeko dinamika da.



8.- TELEFONO MATXURATUA

Dinamikaren sintesia:

Gure hitzek izan dezaketen boterean hausnartzeko dinamika da hau. Egunean zehar hainbeste gauza entzutera ohiturik gaude zein gehienetan jaramonik ere ez dugun egiten. Hainbatetan bide ezberdinetatik jaso dugun hori guztia erabiltzera jotzen dugu istorio edo pasadizoak kontatzeko. Baina gure hitz eta ahotik ateratzean egia borobilak dirudite. Transmitituko ditugun mezuak eraikitzerako garaian zer esaten ari garen pentsatzea oso garrantzitsua da gerora esango dugun hori besteentzako mingarria izan ez dadin edo esaten dugunaren ziurtasuna izan dezagun.

Zein egoeratarako:

Edozein talde motarentzat. Bereziki kotilleoa eta rumorologiak indar handia duen horiengan.

Zer lantzen duen:

Komunikazioa. Mezu bat zein erraz eralda dezakegun konturatzea. Gure harremanetan mezu mota hauek nola erabiltzen ditugun jabetu eta horik nola baldintzatu gaitzaketen.

Garapena:

Partehartzaile guztiak borobilean eseriko dira. Jolasa hasten duenak bere eskuineko kideari belarrian esaldi bat esango dio gainerako parte hartzaileek entzun ez dezaten. Bigarrenak, entzundakoa hurrengo kideari xuxurlatuko dio eta modu berean ekintza errepikatuko da azken jokalariaengana iritsi arte. Azken honek heldu zaio esaldia denek entzuteko moduan esango du eta hasierako esaldiarekin konparatuko da. Dinamika hau nahi hainbestetan errepikatzerik egongo da.

Denbora:

15 minutu. Nahi adina luza daiteke.

Materiala:

Ez da beharrezkoa.

Kontutan hartu beharreko aldeak

Talderekin bakarrik gauden espazio batean egin beharko da inork saioa moztu ez dezan.



9.- ISTORIAO

Dinamikaren sintesia:

Dinamika hau edozein istorio entzuten dugunetik guk geuk kontatzen dugun arte eman diezaiokegun eraldaketa eta honek izan dezakeen inpaktuan hausnartzeko baliagarria da.

Zein egoeratarako:

Edozein talde motarentzako. Bereziki gehiegi pentsatu gabe neurrigabeko iritziak eman eta hitz egitera jotzen duten horientzako.

Zer lantzen du:

Komunikazioa maila guztietan, pertsonen artean, lagun artean, etxean, auzoan, herrian, komunikabideetan...

Garapena:

Oso luzea ez den baina detaile anitz dituen idatzitako istorio bat aukeratu behar da. Istorioa irakurri aurretik lauzpabost boluntario eskatuko ditugu eta bati ezik, gainerakoei gelatik irten daitezten eskatuko diegu. Une horretan azalduko diegu istorioa denentzako irakurriko dela baina gelan dagoen boluntarioa, sartzen den hurrengoari kontatzeko arduraduna izan beharko duela. Aldi bakoitzean istorioa entzuten duen boluntario berriak hurrengoari kontatzeko ardura izan beharko du. Prozesua amaitzen denean berriz ere paperean jasotako istorioa irakurriko dugu azken boluntarioari iritsi zaionarekin konparatzeko.

Denbora:

30 minutu

Materiala:

Aukeraturiko istorioa

Kontutan hartu beharreko aldeak

Kontutan izan beharko dugu zenbat eta boluntario gutxiago hautatu istorioaren deformazioa txikiagoa izango dela.

ISTORIOA ATXIKIRK DAGO



BASERRITARRAREN ISTORIA

Nafarroa Beherako mendebaldeko baserritar batek teiltatu mehe bat jarri zion bere bordari. Handik gutxira urakan moduko haize bortitz batek eraman zuen. Baserritarrak, handik hogeit hamar kilometrotara aurkitu zuenean erabat tolesturik eta txikiturik zegoen eta konpondu zezaketenaren inolako aukerarik ez zuen.

Lagun batek eta abokatu batek Autoen Ford Konpainiak txatar puskarengatik diru kopuru handia emango ziotela esan ziotean eta nekazariak teiltatua Konpainiara bidali zuen berarengatik zenbat emango ote zioten jakin asmoz. Egurrezko kaxa handi batean paketatu zuen eta Angelura, Lapurdira, bidali zuen bertan igorlearen helbidea argi eta garbi idatziz, Ford Konpainiak txekea nora bidali jakin zezan.

Hamabi asteren buruan, baserritarrak Ford Konpainiaren inongo berririk ez zuen. Azkenik, zer gertatzen ote zen galdetzeko idaztera joan zenean eurengandik eskutitz bat jaso zuen. Hala zioen: "Ez dakigu zerk jo ote zuen zure autoaren aurka baina datorren hilaren hamabosterako konpondurik izango dugu".



10.- TALDEKO BAIEZTAPENAK

Dinamikaren sintesia:

Talde bateko partaide izan arren, gutako bakoitza ezberdina da. Gauzak askok elkartzen gaituzte baina beste hainbat gaietan gure iritziak ezberdinak izan daitezke. Aniztasunak aberasten du nahiz eta talde barruan ideia hau onartzea zaila suertatu daitekeen. Dinamika honen bidez, elkar ezagutza eta enpatia ahalbidetzen.

Zein egoeratarako:

Edozein egoeratarako, komunikazioa ahalbidetzen duen dinamika da.

Zer lantzen duen:

Komunikazioa eta elkar hizketa ahalbidetzea.
Besteen ikuspuntuak errespetatzen ikastea
Taldekideen balorazio ezberdinak ezagutzea.

Garapena:

Beraren gai iritziak emateko gai bat aukeratu egiten da. Taldekide bakoitzak txartel edo paper batean bere ideiak idatziko ditu. Ondoren elkar jartzea egingo da. Horretarako arbela batean gure baietzapenak sailkatuko ditugu akordioa dugun eta ez dugunen arteko sailkapena eginez. Ondoren eztabaida bideratu daiteke. Bestalde, taldekide bakoitzak bere iritzia eman beharreko galdera jakinak planteatu daitezke.

Denbora:

2 ordu

Materiala:

Paperak, boligrafoak, arbela...

Kontutan hartu beharreko aldeak

Dinamika hau talde txikiekin egitea errazagoa da.
Beroketa moduko beste dinamikaren batekin hastea gomendatzen da girotzea lantzeko.

11.- DADOA

Dinamikaren sintesia:

Une batean talde baten egoera aztertzen eta ebaluatzen ahalbidetzen du. Galdera jolas baten bidez taldearen egoeraz eztabaida txiki bat egietan datza.

Zein egoeratarako:

Elkarrekin denbora jakina daraman talde naturalentzako.

Zer lantzen duen:

Taldearen egungo egoeraz hausnartzea
Taldearen alderdi positibo eta negatiboak ebaluatzea
Taldearen harremanak hobetzeko moduak bilatzea

Garapena:

Taldekide guztiak borobilean jarriko dira. taldekide bat hasiko da dadoa jaurtiz eta egokitu zaion galderari erantzunez.

Borobilean jarrita dauden hurrenkera berean dadoa jaurti eta galderak erantzunez joango dira banaka banaka.

Hezitzaileak galdera guztien erantzunak idatzi behar ditu, modu horretan jolasa amaitzen denean emandako erantzunak eta taldean dagoen adostasunaren arabera erantzuna itzuliko dio hezitzaileak talderi.

Denbora:

90 minutu

Materiala:

Dadoarena egingo duen eta aurpegi bakoitzean galdera bat idatzirik duen paperez forratutako kaxa.
Kartoi kaxa
Forratzeko papera
Errotulagailua

Kontutan hartu beharreko aldeak

Adibide gisa galdera batzuk erantsirik daude, hala ere, hezitzaileak bere taldearekin landun nahi duenaren arabera moldatu beharko ditu.

Garrantzitsua da taldekide bakoitzari behar adina denbora ematea ateratako galderari erantzuteko.

Adibidetzat har daitezkeen galderak:

1. Zerk eragiten du taldea kolokan egotea? Bere egonkortasuna mehatxatzen duen ezer ba al dago?
2. Talde barruan nahikoa komunikatzen dugu elkar?
3. Nola konpontzen ditugu gure gatazkak?
4. Zer da talde bezala elkartzeko gaituen?
5. Gaizki gaudenean laguntzarik eskatzen ba al dakigu? Norengana jotzen dugu?
6. Taldeari zer eskaini diezaioket harreman hobeko batentzat?



12.- BURBUILA-BAKARDADEA

Dinamikaren sintesia:

Bakardadea esperimintatzeko dinamika da, Lagun talde bat edukitzea "normaltzat" jotzen dugu eta askotan ez gara bere garrantziaz jabetzen. Pertsona bezala garatzeko besteen beharra dugu. Gizarte eta harreman sarerik ez edukitzeak hauskortasun egoera batera garamatza. Zeinekin hitz egin, egon, ondo pasa... ez edukitzea saihestu beharreko egoera da. Dinamika honek bilatzen duena taldearen balioa eta talderik ez duten horiekin enpatia garatzea da.

Zein egoeratarako:

Edozein talde motarentzat. Bereziki taldekide baten edo batzuen bakardade egoerak bizitzen ari dituzten taldeentzako edota kidetza hauskorra duten horientzako.

Zer lantzen duen:

Pertsona bakoitzaren garapenerako taldeak duen balioaz kontzientzia hartzea. Bakardadean sentitzen diren pertsona horiekiko enpatia garatzea.

Garapena:

Hezitzaileek garrantzitsu ikusten dituzten alderdiak azpimarratuz aurkeztuko da dinamika hau. Taldearekin beste herri edo auzoren batera joango gara eta gazteek bertan inor ezagutzen ez dutela ziurtatu beharko dugu. Bertan taldekide bakoitzak arratsalde osoa bakarrik eman beharko du (2 ordu). Puntu jakin batetik denok atera beharko dugu norantza ezberdinak harturik eta bakoitzak bere bidea egin beharko du, parke batean egon, paseatu, plaza batera joan... baina betiere inorekin hitz egin gabe. Koadernotxo bat eraman beharko dute eurekin eta bertan egoera horretan otzen zaien guztia idatzi beharko dute: sentimenduak, sentsazioak... Bi ordu iragan direnean hasierako puntuan bilduko gara berriz. Gaztelekuan gaudenean, elkartzea egingo dugu norberak esperientzia hartutakoaren arabera. Hezitzaileek hausnarketarako galderak bideratu beharko dituzte. Amaitzeko kideetako bakoitzak eguneko esperientziak erakutsi dienarekin lelo bat asmatu beharko dute.

Denbora:

Arratsalde oso bat.

Materiala:

Koaderno txiki eta boligrafoak
Arbela.

Kontutan hartu beharreko aldeak

Inor ezagutzen ez dutela dakigun nonbaitera joatea.
Inorekin hitz egin ez dutenaren arauarekin zorrotzak izan.
Bi ordu horietan bizitako bakardade sentsazioak idatzi behar dituztela gogoraraztea.



13.- INAUTERIA

Dinamikaren sintesia:

Dinamika honetan norberak gustuko lukeen inauteri mozorroa aukeratzean datza. Aukeraturik dugunean ohartuko gara ez garela bakarrik mozorrotuko, lagunekin baizik. Une horretan taldeak oztopo ezberdinak gainditu beharko ditu.

Zein egoeratarako:

Edozein talde edo egoeratarako, betiere taldeko kideez zerbait gehiago ikasiko dugu.

Zer lantzen duen:

Besteekiko ireki
Taldeko barne komunikazioa indartu
Eduki ditzakegun gustu, interes edo balore jakinez kontzientzia hartu.

Garapena:

Datorren inauterietan zein mozorro, non eta norekin mozorrotuko liratekeen eta inongo limite ekonomikorik gabe aukeratu behar dutela azalduko du dinamizatzailerak. Ondoren elkar jartzea egingo da eta bakoitzak egindako aukeraketa azaldu beharko du ahalik eta zehatzen.

1. aukera: hortik aurrera negoziazio une bat irekiko da denen artean mozorro bakarra aukeratu baitezakete.

2. aukera: hortik aurrera norberak taldeko zein pertsona bere inauteri taldean aukeratu lituzkeen pentsatuz. Aukera honek sakontasun eta gatazka maila handiagoak ekartzen du, nahiz eta ez duen zertan negatiboa izan behar.

Elkar jartzearekin amaitzerakoa:

Aukeraketetan sortutako zailtasunak, besteak entzuteko garaian egiten ditugun aldaketak, hartu ditugun erabakiak hartzeko hartu ditugun arrazoiez jabetzea, besteekiko dugun irekiera maila, negoziaketarako bideak, lortutako emaitzak...

Denbora:

2 ordu

Materiala:

Orriak, boligrafoak, margoak, errotulagailuak...

Kontutan hartu beharreko aldeak

Gai erakargarriagoa suertatzen den beste edozeinengatik alda daiteke: ikasketa bidaia, opor lekua...

14.- ARRAIN ONTZIA

Dinamikaren sintesia:

Dinamika honek talde edo egoera batean liderrak izateko aukera gutxiago duten horiei taldeko errepresentazioa izan eta taldeko ideiak defendatzeko aukera izan dezaten ahalbidetzen du.

Zein egoeratarako:

Beste kideen aurrean euren tokia aurkitzen ez duten eta euren iritziak emateko garaian isiltzeko joera hartzen duten taldekideak aurkitzen ditugun taldeetarako.

Zer lantzen du:

Komunikazioa. Talde barruan hitz egiteko esparru txikiagoa duten horien ideiak eta argumentuen errefortzurako baliagarria da.

Garapena:

Bi edo hiru pertsonaz osaturiko hiru talde osatuko ditugu. Dinamizatzaileak galdera edo gai bat bota eta talde bakoitzari denbora jakin bat utziko zaio erantzuna landu dezan. Elkar jartzean talde bakoitzeko arduradunak soilik izango du hitza. Elkar jartzea errazteko arduradunak borobil bat osatzen jarriko ditugu eta gainerako taldekideak bere arduradunaren atzean ikusle soil gisa. Hezitzaileak dinamizatuko duten eztabaida honetan taldeko arduradunek euren taldeko ideiak defendatu beharko dituzte. Aldi berean, talde bakoitzeko gainerako kideek ezingo dute euren arduradunak esandakoari, gehitutakoari edo ahaztutakoari ezer esaterik izango. Dinamizatzailearen esku egongo da eztabaida tarte ezberdinei denbora jakin bat egokitzea.

Denbora:

30 – 60 minutu bitarte. Taldearen iritzi, argudio eta ideiak defenditzeko edota aukeraturiko gai sakontzeko gaitasunaren arabera.

Materiala:

Landuko diren galdera edota gaiak prestatzea.

Kontutan hartu beharreko aldeak

Hezitzaileen esku geratuko da iritziak emateko zailtasuna handiago duten pertsonak horiek taldeko arduradun bilakatze bilatzeko trikimailuak. Presatutako galderen zehaztasun mailaren arabera eztabaida errazterik egongo da. Eztabaidarako mamitsuak izan daitezkeen gai zein galdera zerrenda bat prestatu.

15.- TALDE ROLAK	
Dinamikaren sintesia:	
Dinamika honek talde nola osatuta dagoen hausnartzen laguntzen du, kide bakoitzak zein paper betetzen duen eta horietako bakoitza onartzen den...	
Zein egoeratarako:	Zer lantzen du:
Botere gatazka edo rolen arteko konpetentzia gertatzen den egoeratarako.	Taldean betetzen den tokiaren gaineko kontzientzia hartzea. Taldekide guztiak diren bezalakoak onartzea.
Garapena:	
<p>Taldekide bakoitzeko elkarren artean oso ezberdinak diren sei rolez beteriko fitxa egingo da. Rol bakoitzari izaera hori definitzen duten adjektiboak jarriko zaizkio (Adibidez: ezaguna-liderra, bitartekaria, formala-zintzoa, itxia, konformatzen dena...)</p> <p>Rolak moztu beharko dira pilo batetatik aukeratu ahal izateko. Bakoitzak taldean euren burua identifikaturik sentitzen duten bi rol hartu beharko ditu.</p> <p>Beste taldekide batek zure rolak egiaztatuko ditu edota bietako bat aldatzerik izango dizu.</p> <p>Elkar jartzea egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Bakoitzak aukeratutako bi rolak zergatik hartu dituen adierazi beharko du, bere burua taldean nola ikusten duen. ➤ Rolen bat aldatu badiete, nola sentitzen dira berarekin? Onartzen dute? <p>Taldearen dinamikaren balorazioa.</p>	
Denbora:	Materiala:
60 minutu	Rolen definizio fitxa. 6 txartela pertsona bakoitza, horietako bakoitzean definitutako rol bat.
Kontutan hartu beharreko aldeak	
<p>4 edo 5 kideko talde txikia bada rol aldaketa hori egin denean denek batera zerbait esaterik izango dute.</p> <p>Taldea handiagoa bada bikoteka lan egiten da eta amaieran egindako lana elkar jarriko da.</p>	

16.- ERAIKUNTZA

Dinamikaren sintesia:

Talde dinamikien, rolen, arau, gatazken ebazpenen, talde erabaki hartze prozesuen... analisirako dinamika da hau.

Taldea helburu jakin bat betetzeko erronkaren aurrean jarriko dugu, horretarako, elkarlana, erabakien hartzeak... analizatzea beharrezkoa izango da.

Zein egoeratarako:

Talde dinamika monopolizatu eta manipulatu duten eta hainbat taldekide hutseratzen dituzten lider edo liderrak dauden taldeetarako.

Taldea indartzea ezinbestekoa den egoeratarako.

Zer lantzen duen:

Talde zein maila pertsonaleko helburuak lortzeko talde batek eskain dezakeenaz kontzientzia hartu.

Gehiegizko lidergotzak aurrez aurre jartzea

Erabakien hartzerako dinamika partehartzaileak gehitzea.

Enpatia bultzatzea.

Garapena:

Taldearen tamainaren arabera ikuskari bat edo bi izendatuko ditugu. Taldearen erdian eraikuntza jolas baten pieza anitz jarriko ditugu (tente, lego edo horien antzerakoak), horiekin bat irudi eta panpinatxoak egongo dira. Lehenik material horrekin guztiarekin zer eraikiko luketen pentsatzeko eta irudikatzeke adieraziko diegu inolako hitzik egin gabe. Ondoren taldea denon arteko eraikuntza bat egitera animatuko dugu. Beste araurik ez da egongo. Une horretatik aurrera, erabakiak nola hartzen diren, zein rol betetzen dituzten, zein presio dauden, nola harremantzen diren, zein emaitza lortu duten... ikuskatzea izango da garrantzitsuena. Eraikuntza amaiturik dagoenean gertutakoa taldean aztertuko dugu, egunerokotasunean euren artean duten dinamikarekin alderatuz eta ikuskarien eta hezitzaileen feedbacka emanez. Aukerazkoa izango litzateke dinamika bera grabatzea, denon artean prozesua nola garatu den ikusi eta ondorioak ateratzeko.

Denbora:

2 ordu

Materiala:

Pieza anitzeko eraikuntza jolasa

Irudi eta panpina txikiak

Bideo kamera (aukerazkoa)

Telebista.

Kontutan hartu beharreko aldeak

Hausnarketa unearren kalitatea

Egunerokotasuneko uneekin berdintasunak bilatzea.

Ikasitakoa laburtzea

Positiboak zein negatiboak diren alderdiak azpimarratu.

17.- EGUNEROKOA (bullying-a)

Dinamikaren sintesia:

Dinamika hau bullying egoerak lantzeko aproposa da, egoera larrian dagoen norbaitekiko enpatia garatzen laguntzen duelako. Gure esku egongo da zein egoera landuko dugun aukeratzea baina kontuz ibili beharko dugu taldeko inor benetan identifikaturik sentitu eta erabat itxi ez dadin. Dinamika, pista jolas moduan planteatzen den ekintza da.

Zein egoeratarako:

Bereziki taldekide bat arrazoi ezberdinengatik presionaturik, bazterturik edota anulaturik ikusten dugun egoeratarako. Enpatia gaitasuna lantzeko oso aproposa da.

Zer lantzen duen:

Enpatia gaitasuna landu. Jazarpena gertatzen diren egoerak larritzat identifikatzea

Garapena:

Eguneroko moduan idatzirik dagoen istorioa erabakita dugunean parte ezberdinetan zatituko dugu (hirzpalau zati) eta zati horietako bakoitza ezkutatuko dugu. Parte horiek guztiak kronologikoki zenbakituko ditugu gazteek gerora ordena horretan aurki ditzaten. Aurre prestaketarekin amaitzen denean jolasarekin hasiko gara. Gazteei hainbat pista aurkitu beharko dituztela adieraziko diegu baina betiere ordenan egin beharko dutela, hala irakurriko baitituzte. Pistak irakurri ahala, pertsona baten egoera zaila deskubritzen joango dira, istorio osoa lortzen duten arte. Ondoren dinamizatzaileak solasaldia zabalduko du

Puntu aipagarriak:

- Pertsona hori pairatzen ari den egoera ezaguna/ezezaguna egiten zaigun
- Istorioa ezagutu ahala nola sentitu diren (1.egunetik azken egunera, gehiago deskubritu nahi izan ote duten, zein sentimendu bizi dituzten pertsona horrekiko, egunerokoak zein amaiera izan dezakeen...)
- Inoiz izan dugun pertsonak horrek adierazitako sentimendurik
- Inoiz erasotzaile izan garen uste dugun

Denbora:

90 minutu

Materiala:

Istorioak

Kontutan hartu beharreko aldeak

Idazten dugun istorioa eguneroko formatuan edo lehenengo pertsonan idatzi beharko da. Gazte batek idatziko balu bezala idatzita badago gertuagokoa egingo zaie.

BI ISTORIO ATXIKIRIK DAUDE ADIBIDE MODUAN



Jarraian eguneroko moduan agertzen diren bi istorioak inoiz erabili izan dira dinamika hau aurrera ateratzeko. Bi istorioek talde ezberdinek nahiko gertutik pairatu zitzazketen egoeratan oinarriturik daude. Hau da, hainbat egoera eraldaturik daude baina talde konkretu batzuen egoerak isladatzen dituzte. Arrazoi horregatik garrantzistua izango da idaztera goazen istorio horretan isladatu nahi dugun egoera lan egin nahi dugun taldeak gertutik ezagutzea. Amaiera norberaren esku, bi istorio hauek amaiera berdina dute. Hiru zatitan daude banaturik.

Lehenengo egunerokoa:

1. zatia

2004-X-20

Hau kaka bat da!!!!

2004-X-21

Guztiarekin nekatuta nago. Denak sartzen dira nerekin, denak... bat ezik, JON.

2004-X-22

Itsusia naiz eta horregatik sartzen dira denak nerekin, baina hori berdina zait. Hona hemen nire argazkia. (Marraski bat gehitu zen)

2004-X-23

Jonek ateratzeko eskatu dit. Horren da guapoa! Egia esan asko gustatzen zait baina ez dakit zer egin. Jende guztia sartzen da berarekin marikoi bat dela esaten dute. Baina nik badakit hala ez dela, bera... hoberena da! Besteak bai marikoiak!

2004-X-24

Gaurkoa bai egun nazkagarria, denak sartu dira nerekin eskolan, Denek iraindu naute. Ez dut horrelako toki batean jarraitu nahi.



2004-X-25

Joni baiezkoa eman diot! Ea dena ondo ateratzen den.

*Dagoeneko toki hau ez da segurua
Hor doa pista.*

2. zatia

2004-X-26

Gaur ere dena gaizki joan da. Denak sartu dira Jonekin. Deneb diote nirekin ateratzen ari dela besteek gay dela esan ez dezaten. Eta horretarako ni izan nintekeela aukera bakarra.

2004-X-27

Gaurkoan gauzak ondo joan dira, ea horrela jarraitzen duten.

2004-X-28

Ez dut lagunik, neska guztiak zerri hutsak dira. Nirekin sartzen dira, iraintzen naute, zapaltzen naute, desagertu nahi dut.

29-X-2004

Jonek proposamen lizun samarra egin dit. Ea gertuagotik ikusi nahi dudana, aurrekoan neskok mutilen aldageletara sartu eta dutxetan zeudenean ikusi genuena.

Nik esan diot ez nuela ezer ikusi. Baina benetan ikusitakoa mundiala izan zen!!! Jaja!

Onartu egin dut, uf!



2004-X-30

Egun nazkagarria!

Denek jakin dute. Jonek bere proposamena betetzen zuen bitartean harrapatu gaituzte. Jendeak dio ordaindu egin nauela nik zerbait egin niezaion. Denek gauza bera esaten didate: URDANGA, PUTA!

2004-X-31

Jonek utzi nau. Nire bizitzak ez du ezertarako balio.

*Toki hau ez da segurua
Hor doa pista*

3. zatia

2004-XI-1

Neska berria iritis da eskolara, Belen du izena. Dagoeneko hasi gara. Denak saiatu dira Belen nire aurka jartzen baina denez paso egin du. Oso neska polita da! JOE! Neska guztiek enbiria diote.

2004-XI-2

Gaur nire urtebetetze eguna da baina, ez da inor gogoratu edo ez dute gogoratu nahi izan. Bakarrik Belen zoriondu nau.

2004-XI-3

Denak sartu dira nerekin eskolan. Ez naiz gehiago joango. Belen kasurik ez egiteko eta eurretaz paso egiteko esaten dit.

Ez dut gehiago aguantatzen. Desagertu nahi dut.



2004-XI-4

Gaur ez naiz eskolara joan, gaixo nintzela esan dut.

2004-XI-5

Belenek proposamen bat egin dit. Bera New Yorkera doala eta berarekin joateko gonbitea luzatu dit.

2004-XI-6

Belenekin joango naizela erabaki dut.
Izorrai gainerako guztiei!
Nire berri izando duzue.

Bigarren egunerokoa

1. zatia

3-XI-2006

Hau kaka!!!!!!

4-XI-2006

Guzti honetaz nekatua nago, mundu guztia nirekin sartzen, bueno denak Maria izan ezik.

5-XI-2006

13 urteko mutil arrunt bat naiz, bueno, ia guztiz arrunta, berezitasun bat daukat, ikastea gustatzen zait. Horren ondorioz mundu guztia nirekin sartzen da, que si empollon, lameculos, sabelotodo... Baina neri berdin zait guzti hori, gustura ikasten dut eta nota onak ateratzen ditut. Nire notak gehitzen ditut egia dela frogatzeko.



Ikasgaia	Ekoizpena	Ulermena	Jarrera	Nota finala
Gaztelera	10	10	10	10
Euskara	9.5	10	10	10
Ingelesa	10	9.9	10	10
Matematika	9.8	10	10	10
Gizarte	9.9	10	10	10
Natura	10	9.8	10	10
Teknologia	9.7	10	10	10
Plastika	10	9.9	10	10
Soinketa	10	9.7	10	10

6-XI-2006

Gaur Mariarentzat izan da egun txarra, Maria da nirekin sartzen ez den pertsona bakarra. Maria fisikoki nahiko lodia da eta ez da soinketako ariketa bat egiteko gai izan horren ondorioz denak berarekin sartu dira. Ez dira konturatzen garrantzitsuena ez dela fisikoa izaera baizik.

7-XI-2006

Gaurkoa egun nazkagarria izan da, berri zere denak sartu dira nirekin eskolan. Ez dut horrelako toki batean jarraitun ahi. Eguneroko honi orriak bukatzen ari zaizkio, beste bat bilatu beharko dut.



2.zatia

8-XI-2006

Gaur nire bizitzako egunik txarrena izan da. Mariarekin hitz egiten nintzen eta jende guztia gurekin sartzen hasi da. Denetarik esan digute. Arraro samarrak garenak beti elkarrekin amaitzen dugula esaka aritu dira. Ni ez naiz arraroa, edo banaiz?

Han terminado diciendonos que los bichos raros dios los cria y ellos se juntan

9-XI-2006

Gaurkoan gauzak ondo joan dira, ea horrela jarraitzen duten.

10-XI-2006

Momentu honetan ez dut lagunik, denak nirekin sartzen dira, lur jota uzten didate. Mundu honetatik desagertu nahi dut.

11-XI-2006

Gaur larunbata da eta ez dago klaserik, eskerrak. Ezin dut horrela jarraitu. Ez dut ikastetxe horretara bueltatu nahi.

12-XI-2006

Igandeak ere ez dira lasaiak. Txakurra ateratzera joan naizenean klaseko bik harriak bota dizkidate. Bihar ez naiz klasera joango.



3. zatia

13-XI-2006

Gaixoarena egiten saiatu naiz eskolara ez joateko baina gurasoak konturatu dira eta eskolara joan behar. Gutxienez eguna ez da nik uste bezain gaizki joan. Mutil berri bat hasi da eskolan, Jon izena du eta denak xixatzen aritu zaizkio nire kontra jar zedin, baina berak paso egin du. Ze jatorra!

14-XI-2006

Gaur nire urtebetetze eguna da eta ez nau inork zoriondu, beno bai, klaseko mutil berriak bai, gainera ni bezain azkarra dela konturatu naiz, dena daki.

15-XI-2006

Gaurkoan denak sartu dira denekin baina Jonek defenditu nau. Tipo hau kristona da!! Berarekin sartu direnean denak pikutara bidali ditu. Txapela kentzeko moduko mutila! Zenbat gustatuko litzaidakeen bera bezalakoa izatea.

16-XI-2006

Jonek berarekin oporretara joateko eskaintza egin dit. Beldur naiz. Eta gehiago ezagutzen nauenean berak ere tipo arraro bat naizela pentsatzen badu? Hilko banintz... aukeraketari kez, dena errazagoa izango litzateke.

17-XI-2006

Jonekin izan naiz eta erabaki dut, banao berarekin!!!!!!!!!!

Gaur gauean aterako gara bidaiari.

Bueltakoan... pentsatuko dut bizitzeak merezi ote duen.

18.- ISPILUA

Dinamikaren sintesia:

Adjektibo sorta bat jazotzen dituen fitxa batekin lan egiten da. Gainerako taldekideek norberaz duten irudia ezagutzen eta norberak besteez duena ematen laguntzea. Taldeak ispiluarena egingo du identitate eta paper ezberdinak ezagutzera emanez.

Zein egoeratarako:

Talde mota guztientzako baina euren arteko ezagutza minimo bat dutenean.

Zer lantzen duen:

Norberak bere buruaz dituen pertzepzioak eta besteei ematen diegun irudia lantzen laguntzen du
Taldean dauden rola.

Garapena:

Fitxaren banaketa.

Adjektibo guztiak irakurriko dira. batzuk besteei kontrajarriak dira eta denek hitz guztien esanahia ezagutzea garrantzitsua da.

Bakoitzak 6 adjektibo aukeratu beharko ditu: **bere burua** positiboki definitzen dituen 3 eta harremanak indartzeko mantentzea gustatuko litzaizkiokeenak eta berarenak izanik negatiboak direla onartzen dituen beste hiru eta aldatzea gustatuko litzaizkiokeenak bere harremanak ahultzen dituelako.

Amaitzen dutenean orria paretan itsatsiko dira eta kide guztiak pasako dira guztietatik ariketa bera eginez eta pertsona bakoitza hoberen definitzen duten adjektiboak azpimarratuz (3 positibo eta 3 negatibo)

Denek adjektiboak aukeraturik dituztenean, fitxak jaso et aberriz banatuko dira elkar jartzea egiteko.

Norberak bere buruaz eta besteei norberaz uste dutena alderatzean datza.

Ematen dugun irudia aztertu eta ea eroso sentitzen garen ala ez... hitz egin.

Norberak mantendu nahi dituen edo hobeto nahi dituen alderdiak aukera ditzake. Nola lagun diezadakete nire lagunek honakoa hobetzen?

Eskaeren aukeraketa eginez dinamikarekin beste egun batean jarraitu daiteke.

Denbora:

90 Minutu

Materiala:

Adjektiboen fitxa
Boligrafoak.

Kontutan hartu beharreko aldeak

Adjektiboen aukeraketa modu orekatuan egitea zaindu behar da (3 eta 3).

Denek hitz guztien esanahia ezagutzea

Harremanetan laguntzen duten alderdietan errefortzua egitea eta harremana zailtzen dutenentzako aldaketarako tresnak ematea .

ATXIKITURIK DOAN FITXA IKUSI



<i>IZENA:</i>										
<i>IREKIA</i>										
<i>EZKORRA/PESIMISTA</i>										
<i>SIMPÁTIKOA</i>										
<i>IXILA</i>										
<i>OPTIMISTA</i>										
<i>HIZTUNA</i>										
<i>ALAIA</i>										
<i>SERIOA</i>										
<i>SEGURUA</i>										
<i>AUSARTA</i>										
<i>BELDURTIA</i>										
<i>XUMEA</i>										
<i>PINPIRIN</i>										
<i>FIDAKORRA</i>										
<i>FIDAKAITZA</i>										
<i>BAKARTIA</i>										
<i>GIZARTEKOIA</i>										
<i>ESKUZABALA</i>										
<i>XUHURRA</i>										
<i>LANGILEA</i>										
<i>ALPERRA</i>										
<i>ZINTZOA/EGIZALEA</i>										
<i>SORTZAILEA</i>										
<i>BESTERIK</i>										



19.- TALDEKO BALIO ETA KONTRABALIOAK

Dinamikaren sintesia:

Talde bezala definitzen gaituzten baloreen gaineko kontzientzia hartzeko dinamika. Auto ebaluaketa bat egin eta ingurukoek nola baloratzen dituztenaren artean konparaketa egitean datza.

Zein egoeratarako:

Talde oso itxia den egoeratarako edo euren taldeaz balorazio positiboegia zein negatiboegia dutenentzat edota taldeko balio positibotzat ingurukoek balio negatibotzat jotzen ditugunak dituztenak.

Zer lantzen duen:

Taldea definitzen duten balioez gaineko kontzientzia hartzea.

Garapena:

Hezitzaileek, aldez aurretik, inguruko gazteei gure taldea nola ikusten dutenari buruzko galdeketa bat pasako diegu.

Galdera bakoitzari emandako erantzunekin bataz bestekoa kalkulatu eta eskalimetro moduko bat marraztuko dugu. Bertan item bakoitzaren bataz bestekoa azalduko da.

Panel hau (paper handi batean egitea gomendatzen da) gorderik geratuk oda eta ez diogu taldeari erantsiko. Gauza bera errepikatuko dugu hezitzaileok egindako balorazioarekin (heldua den beste agenterik balego ere gehituko genuke).

Azkenik galdeketa bera taldekide guztiei pasako diegu auto ebaluaketa gisa. Hein berean eurek duten talde kontzeptua adieraziko duen bataz bestekoa kalkulatu da. Ondoren lortutako hiru galdeketa ezberdinek emaitzak konparatuko ditugu: inguruko taldearena, hezitzaileena eta auto ebaluaketarena.

Emaitzak aurrez aurre jarriaz eta bertatik jasotzen ditugun kontrasteetan oinarriturik hausnarketa egitera bultzatuko ditugu. Nola ikusten dugu gure taldea? Nola ikusten gaituzte? Gure talde barruko pertzepzioetan zein ezberdintasun ikusten ditugu?

Denbora:

Hezitzaileen aldez aurretik olana galdeketa egin eta pasa ahal izateko
Dinamika berak 90 minutu.

Materiala:

Galdeketa
Paper handi eta errotulagailuak

Kontutan hartu beharreko aldeak

Aldez aurretik galdeketa prestatu eta erantzunen konfidentzialtasuna gorde.
Ematen diren balorazioak modu serioan emango direla ziurtatzea.
Erantzunen alderatzea aldaketarako teknika gisa erabili.



20.- TALDEKO ETA NORBANAKOEN BIZITZA IBILBIDEAK

Dinamikaren sintesia:

Zein prozesu pertsonal eta talde batera nola iritsi garenaz kontzientzia hartzeko dinamika da. Lehen aldia eta orainarekin kontzientzia hartzen laguntzen du eta ikasitakoaren arabera etorkizuna begiratzen. Batetik, elkarren artean ulertzen eta enpatizatzen laguntzen du eta bestetik taldea baloratzen.

Zein egoeratarako:

Edozein talderentzako. Bereziki euren bizitza ibilbideetan talde porrota bizi izan duten partaideez osaturiko taldeentzako. Bakarrik egon diren pertsonentzako, beste taldeetatik kanporatu dituztenentzako, hein batean berdinen taldeengatik eraso fisiko zein psikologikoak jasan dituztenentzako.

Zer lantzen duen:

Bizitza ibilbideez, orainaz eta pertsona zein talde gisa etorkizunerako ditugun aukera zein arriskuez kontzientzia hartzea

Enpatia.

Garapena:

Dinamikaren aurkezpena. Dinamikaren garrantzitsuena eta kontuan gehien hartu beharrekoa azalduko da eta dinamika burutzeko talde arauak ezarriko dira orduan (konfidentzialtasuna, errespetua eta entzutea). Oso modu zorrotzean errespetatu beharko dituzte parte hartzaile guztiak. Komentario ironiko, negatiboa, mingarriak... agertuko balira egoera moztu eta bere prozesua kontatzen ari den pertsona babestu beharko genuke hezitzaileok.

Bere barruan paper bat (pergaminoa) duen kaxa itxi bat emango zaio bakoitzari. Paperak kontakizun baterako hasiera idatzirik izango du: "BAZEN BEHIN IZENEKO NESKA/MUTIL BAT..."

Norberak bere lagun eta taldeen historian izan dituen une esanguratsu,aldiak, mozketak, egoerak... kontatuz hasi beharko du eta amaitu ordea bere etorkizunari begira (3, 4 edo 5 urte barru bere burua nola ikusten duen). Idatzi honen bidez eurak protagonista diren ipuin modukoa osatu beharko dute.

45 minutu izango dituzte istorioa amaitzeko gutxienez.

Ondoren bakoitzak bere ipuina besteekin elkar banatuko du. Hala ere ez du zertan osorik irakurri beharko, hainbat zati berarentzako gordetzerik izango du. Taldeak isiltasunez entzun beharko du eta gehienez ere feedback enpatikorik adierazteko aukera izango du ("horrek gogorra behar zuen...", "...oso hunkigarriak iruditu zait...", "...entzun dizudan hori ...zertan lagungarria zait..."). Hezitzaileek dinamika nola modelatzen eta gidatzen duten oso garrantzitsua izango da.

Bukatutakoa, kaxan gordetzerik izango dute, altxor bat, amaitu gabeko ipuin bat... bailitzan.

Denbora:

2 ordu gutxienez.

Materiala:

Kaxa. Pergaminoa. Taldearen intimitatea babesten duen espazio bat.

Kontutan hartu beharreko aldeak

Dinamika honek ezin du prozesuaren hasierako dinamika bat izan. Aldez aurretik komunikazio eta konfiantza egoera bat behar da talde barruan kontatzen diren esperientzia pertsonalen babeserako.

Kontuz ibili pertsonalegiak edo traumatikoak izan daitezkeen egoerataraz ez iristeko.

21.- TALDE SOZIOGRAMA

Dinamikaren sintesia:

Talde soziogramak taldeko kideen pertsonarteko harremanak, elkarrekiko atxikimendu edo urruntasun maila analizatzeko baliagarria zaigu. Behin soziograma bukatzerakoan harreman sare bat ere egingo bagenu elkarren artean zein harreman mota dituzten ezagutzen eta analizatzen lagunduko liguke. Dinamika honek beti ere agerian geratzen ez diren taldeko harremanen egoera azalazten du eta harremanetan aldaketak egiten laguntzen du.

Zein egoeratarako:

Aldez aurretik denbora jakin bat elkarrekin daraman talde baten egungo egoera ezagutzeko. Taldekideen aldetik gutxieneko heldutasun maila bat eskatzen du eurek taldean dituzten posizioak onar ditzaten.

Zer lantzen du:

Pertsonarteko harremanak: azpi taldeak ezagutu eta bakardade eta taldekideen arteko enfrentamendu egoerak ezagutzea.

Garapena:

Partaide bakoitzak bere buruaren marrazki bat egin beharko du bertan bere izena idatziz. Marrazki guztiak elkartu eta paretan zintzilikaturik dugun paper edo mural batean itsatsiko ditugu. Partaide bakoitzak marrazkiak tokiz mugituz izango ditu bere taldekideekiko dituen harremanak bere ustetan nolakoak direnaren arabera (elkarrekiko ezagutza, atxikimendu maila...)
Ondoren elkar jartze bat egingo dugu. Bertan oso interesgarria izango da taldekide bakoitza hasierako posizioan zein ondoren aldatu dutenean nola sentitu den entzutea. Errotulagailuen loditasun ezberdinak erabiliz taldekideen artean agertzen diren harremanak saretzen joan gaitzke harremanaren intentsitatearen arabera eta norabide eta norantzak adieraziz.

Denbora:

2 ordu

Materiala:

Kartulina, papera edo panel
Orriak o txartel moduko argazkiak
Guraizeak eta lodiera ezberdineko errotulagailuak
Zelo edo kola

Kontutan hartu beharreko aldeak

Dinamikaren aldaera bat egin daiteke txartel moduko argazkiak marrazkien ordeztan erabiliaz eta denboraren arabera lantzen joan taldeak jasaten dituen aldaketak analizatu ahal izateko.
Hezitzaileak adi egon beharko du dinamika bera taldeko inork beste helburu batekin erabili ez dezan (aspaldiko kontu zikinak ez ateratzeko...).

22.- SUPERBIBENTZIA IBILALDIA

Dinamikaren sintesia:

Taldearen potentziala lantzeko dinamika da, talde dinamikaren analisia, talde arauak, paperak, gatazken ebazpena, taldeen erabaki hartze prozesuak... Taldea, helburu amankomun bat betetzeko, pentsatu, erabakiak hartu, ikasi, elkar lan egin, aztertu... egin behar dituen erronka baten aurrean jartzen da. Gutxienez egun oso bat eduki behar da. Ahal bada bi egun izan daitezela.

Zein egoeratarako:

Talde dinamika monopolizatu eta besteak ezabatzen dituen lider bate do batzuk dauden egoeratarako. Taldea indartzea beharrezkoa den egoeratarako.

Zer lantzen duen:

Talde zein norbanakoaren helburuak lortzeko talde batek eman dezakeenaz kontzientzia hartu. Gehiegizko lidergotzak aurrez aurre jarri. Erabaki hartze partehartzaileak sustatzen dituzten dinamikak taldera eraman Enpatia bultzatu

Garapena:

Taldeari ezagutzen ez duen paraje batetik mendi irteera bat egitea proposatuko zaio. Bertan helburu jakin batzuk lortzeko hainbat froga pasa beharko dituzte. Motibazioa lortzeko hainbat telesailen konparaketa egin daitezke "basetxea", "el conquistador..." edota antzerakoak.

Aldez aurretik ibilbidea diseinatuko dugu, hamaiketako eta bazkaria puntu estrategikoetan ezkutatu ditugu, frogak diseinatu eta lotarako tokia aukeratu. Mendian ibiltzeko hainbat gauza erakutsi beharko zaizkie: orientazioa, mapen irakurketa... (ibilaldia baino egunen bat lehenago).

Ondoren taldeko 6 arauak aurkeztuko dizkiegu:

1. Ibilaldia denek elkarrekin egin beharko dute.
2. Ezingo dute elikagairik eraman.
3. Erabakiak denen artean eta pentsatuaz hartu beharko dituzte.
4. Ezingo dute taldeaz kanpoko laguntzarik jaso (galdetu, janaria eskatu...).
5. Hamaiketako, bazkaria... lortzeko ibilaldiko puntu jakin batera iritsi beharko dute eta dagokion froga gainditu.
6. arau hauetako edozein hausteak, ekintza hau bertan behera utzi eta etxera bueltatzea ekarriko luke.



Hezitzailea laguntzaile gisa joan beharko du eta ikuskapen edo obserbazioa izango da bere egin beharra. Taldearen ongizateaz arduratuko da baina ez du taldea gidatuko ez eta taldearen erabakietan parte hartuko. Ahal izanez gero taldearentzako "gako" diren uneak bidez grabatu beharko ditu: eztabaidak, frustrazioak, erabakien hartzeak, frogak nola gainditzen dituzten, elkarri ematen dizkioten mezuak egoeraren arabera... Talde dinamika osatzen duten alderdiekiko adi agertu beharko du: elkarlana, lidergotza, rolak, gatazken ebazpena, frustrazioen erabilera, errespetua... beharrezkoa izan ezkerro oharra jasoko ditu. Ez du inolako pistarik emango, taldeak arauak betetzeaz arduratuko da eta frogetako epaile izango da. Taldeak berak autonomiaz jokatu beharko du zailtasunen aurrean.

Gomendio hauen jarraipena ezinbestekoa da dinamika honen helburuetarako. Taldeak emandako planoaren arabera ibilbidea egin beharko du eta janaria non aurkitzen den bertan zehazturik egongo da.

Une aurretik aurrera bizitako esperientzia eta gauzatzen den prozesua izango dira garrantzitsuena.

Ibilaldia amaitu eta dutxatu eta atseden hartu ostean, hausnarketa prozesu bat burutuko da. Bertan, prozesuaz kontzientzia hartuko da eta izandako esperientzia eta euren eguneroko errealitatearen arteko loturak egingo dituzte. Hezitzaileak dinamizatuko du eztabaida, ibilaldian zehar atzeman dituen uneak adieraziz eta ibilaldian gertatu diren eta eurek egunerokotasunean talde zein maila pertsonalean funtzionatzeko dituzten moduekin zerikusia duten alderdiak aurrez aurre jarriaz.

<p>Denbora:</p> <p>Egun oso bat gutxienez Hoberena bi egunez egitean (gaua barne)</p>	<p>Materiala:</p> <p>Ibilbidearen plano Iparrorratza Telefono mugikorrak. Kantimplorak... Bideo kamera TB.</p>
--	---

<p>Kontutan hartu beharreko aldeak</p> <p>Motibazioa zaintzea Proposamen garbia egitea Arauen zorrotasuna Ibilaldian gertatzen den ororekiko adi egon. Hausnarketarako uneen kalitatea Eguneroko bizitzan egiten dugunarekin antzekotasunak bilatzea Ikasitakoa laburbiltzea Alderdi positibo zein negatiboak adieraztea.</p>
--

23.- ROL PLAYING	
Dinamikaren sintesia: Euren gizarte harremanetan trebetasun berriak sartzeko dinamika da.	
Zein egoeratarako: Taldekideen gizarte trebetasunak eskasak izanik talde barruan zein kanpoan gatazkak sortzen dituztenerako.	Zer lantzen duen: Gizarte trebetasunak
Garapena: Dinamika eta bere arauak aurkezten dira Landu daitezkeen egoera errealei buruzko ideiak zaparrada egiten da. Denen artean egoera bat aukeratzen da. Hasiera batean egoera proposatu duenak rol nagusia hartuko du eta egoera horretako beste aktoreak hautatuko ditu. Egoera zehatz mehatz azalduko du. Aktore guztiak paperean eta unean zentratuko dira. Gainerakoak, hezitzaileak barne ikusle papera hartuko dute. (hitzez esaten denari, egoerari, bestela adierazten denari... erreparatu). Gertatu zen moduan edo normalean gertatzen den moduan antzeztuko dute erdian jarriarik. Nahi izanez gero bidez grabatzerik izango da euren buruak ikus ditzaten eta egoerarengandik ikas dezaten. Hezitzaileek lanerako egoerak atera diren uneetan moztuko dute antzezpena (ez 3 edo 4 minutu baino luzeago). Aktoreak nola sentitu direnaren galderari erantzun beharko diote. Ikusleek feedback positiboa eman beharko dute (honakoa ondo egon da baina beste horretan hobeto beharko zenuke...) hezitzaileek modelatu (jarraibideak eman) eta behar izanez gero antzeztuko dute (paper nagusia harturik) Sekuentzia bizpahirutan errepikatuko dugu. Saioa ebaluaketa batekin itxiko dugu. Rol playingerako egoerak: <ul style="list-style-type: none"> ● taldekideren batek zutaz zer edo zer esan duenaz enteratzen zara. ● Taldekideren batek utzitako zerbait ez dizu itzuli ● Larunbata arratsaldean egin daitekeenaz akordiorik ez dago. ● Kaleko errieta bat heldu batekin ● Norbaitek gustuko ez duzun broma egiten dizu. 	
Denbora: 90 minutu	Materiala: Mugitzea ahalbidetzen duen gela handia. Bideo kamera eta telebista (aukerazkoa)
Kontutan hartu beharreko aldeak Espazio handi bat erabili non interpretatzeko zein hitz egiteko espazioak bereiztuko diren Egoerak berriegi edo beroegiak ez direla zaindu. Feedbackak positiboak izatea zaindu Gutxinaka gutxinaka modelatu. Modelatu ezkerreko euren gertu geratzeko moduan egin.	



24.- BIDEO FORUM	
Dinamikaren sintesia:	
<p>Taldearentzat interesgarria den pelikula bat ikustean datza. Ondoren pelikularen inguruko eztabaida edota interesgarriak diren dinamikak egingo dira.</p>	
Zein egoeratarako:	Zer lantzen duen:
Edozein talde eta egoeratarako	Taldeak duen beharraren arabera
Garapena:	
<p>Taldeak bizitzen duen unerako garrantzitsuak diren alderdiak jorratzen dituen film bat aukeratuko da. Gaiak anitzak izan daitezke: sexualitatea, drogen kontsumoak, talde harremanak, indarkeria...</p> <p>Filma ikusi ondoren eztabaida ireki bat egitean datza edota dinamika errazen bat (ondorioen de zaparradak...) filmaren mezuaz hausnarketa egin ahal izateko.</p>	
Denbora:	Materiala:
2 ordu eta erdi	DVD TB Arbela
Kontutan hartu beharreko aldeak	Laguntzarako materialak:
<p>Filma ondo aukeratzea Hezitzaileek lehenago ikustea Hausnarketa nola bideratuko den pentsatzea Taldea atentzioa lortzerik izango duen filma bat aukeratzea. Ahal bada pelikula zatiak hartu eta horien gainean lan egitea. Taldearekin filma bakarka ikustea.</p>	Filmen gida



FILMEEN GIDA

IZENA <p style="text-align: center;">Billy Elliot</p> <p style="text-align: right;"><i>"Billy Elliot"</i> JATORRIZKO IZENA</p>	
ZUZENDARIA <p style="text-align: center;">Stephen Daldry</p>	GAIA Bakardadea Aukeren berdintasuna eta hezkidetzeta
SINOPSIA <p>Durham, Ingalaterra iparraldeko herria, 1984ko mehatzetako greba baten garaian. Billy Elliot, aita alarguna, anaia eta amonarekin bizi den hamaika urteko mutila da. Astean behin eskolako lagunez lagundurik boxeoa irakasten den gimnasio batera joaten da. Aldi berean komunitateko neskatzentzako dantza irakasten da. Balletak gero eta gehiago erakartzen du Billy eta balleteko irakaslea den Wilkinson anderea, segituan ohartuko da bere talentuaz. Dantza, nesken kontua dela uste duten aita eta anaiaren borondatearen kontra, Ingalaterrako dantza eskola arrakastatsuen den Londoneko Eskola Errealeko sarbide frogetarako, Billy prestatzea erabakakitzen du.</p>	
OHARRAK <ul style="list-style-type: none"> - "Nire ustez edonor sentitzen da borroka istorio baten aurrean identifikaturik, adibide honeta egoera zailen aurrean espresatzeko modua bilatzen ari den mutil baten aurrean gaude" hitz hauek filmearen zuzendariak, Billy Elliot zuzentzearen arrazoeiz galdetu ziotenean emandako erantzuna dira. Filmean ikusterakoan zuzendariak aipatzen dituen egoera zail horiek zeintzuk diren adierazi. - Filmean agertzen diren kontzeptu eta balioak komentatu: norberaren ideiei eta usteen defentsa, toleratzi eta laguntasuna, Billy Elliotek bere ametsa errealitate egitea lortzearen borrokarekin ikusleek duten identifikaziotik abiatuak. - Neskentzat, sokasaltoan aritu eta mutilentzako, futbolearen aritzea, ezberdintzen diren ekintzen gaineko eztabaida egin. Zergatik desberdintzaen dira ekintza hauek? Zenbat neskari gustatzen zaio futbolearen aritzea? Zenbat mutili gustatzen zaio dantzatzea ala sokasaltoan aritzea? Zeren arabera aukeraratzen ditugu gustoko ekintza jakin hauek? - Filmearen egitura narratiboa aztertu, Billy Ellioten garaipena eta mehatzarien grebaren galtzean dagoen kontrako harremanaren arabera. 	



IZENA ¿A quién ama Gilbert Grape? <i>What's eating Gilbert Grape?</i> JATORRIZKO IZENA	
ZUZENDARIA Lasse Hälstrom	GAIA Aukeren berdinatuna eta hezkidetzak
SINOPSISIA Gilbert, ikaragarri lodia den amarekin, azalekoak eta txolin xamarrek diren bi arreba eta une oro zaindu beharreko anai ezinduz osatutako ezinezko familiarekin Estatu Batuetako Endora herri txikian bizi da. Hiritik datorren neskez maitemintzean monotonoa den bere bizitza erabat aldatu egingo da.	
OHARRAK <ul style="list-style-type: none"> - Gilberten ezaugarri pertsonalak adierazi eta ohiko heroiek izaten dituztenekin alderatu. - Gilbertek bere ama, arreba eta anaiarekin dituen harremanak deskribatu eta haiekiko dituen norantza ezberdinetako sentimenduak aztertu. - Gilbert eta Becky, karabanako nesken artean gertatzen den gerturatzea deskribatu. Euren artean dituzten antzekotasunak eta euren laguntasunaren ezaugarriak azaldu. Zein garrantzia du neskek bere anai-arreben bizitzan? - Filmearen amaieraren haratagoko bizitza imaginatu. Nola izango da Gilbert eta Beckyren arteko harremana? Zein garapen izango du anai arreben arteko harremanak? Zein neurritan eraldatuko da herriaren bizitza? 	



IZENA	
Barrio	
JATORRIZKO IZENA	
ZUZENDARIA	GAIA
Fernando León de Aranoa	Lagun taldea
SINOPSIA	
<p>Hamabost urtetako Javi, Manu eta Rai gazteek udako oporrak Madrideko kanpoaldeko euren auzoan igaro behar dituzte. Dirurik gabe eta inongo neskarekin hitz egin ezinik elkarri kontatuko dizkiote euren arazo eta ilusioak. Filme guztiak imaginatzen dutena eta euren errealtatean dutenaren arabera estruktura du. Hondartzak exotikoak erakusten dituen bidai agentzia bateko irudia eta yogurren lehiaketa batean Raik irabazten duen motorra nautikoa dira gazteek imaginatzen dutena eta eduki dezaketenaren arteko distantzia erakusteko zuzendariak erabiltzen dituen elementuak. Bizitza tokatu zaien mundu horretan superbibentziarako aukera bakarra euren bizitzei zentzua emango dien ilusio bat eraikitzea da.</p>	
OHARRAK	
<ul style="list-style-type: none"> - Hiru pertsonai nagusien izaera azaldu eta euren egoera familiar zein pertsonala aztertu. - Gure gizartean ager idiren gizarte ezberdintasunak aipatu. - Hiru pertsonai nagusien ardurak eta ilusioak, beste gizarte klaseko gazteek izan ditzaketenekin alderatu. - Desira eta aukeren arteko ezberdintasunak adierazteko filmean erabili diren baliabideak aipatu. - Orokorrean ezagutzen ez dugun gizarte errealtate baten testigantza modura filmearen ikuspegi kritikoa baloratu - Hiru pertsonaien esperientzien arabera filmeak adierazten dituen gizarte gatazkak zehaztu 	



IZENA <p style="text-align: center;">Felices dieciseis</p> <p style="text-align: right;"><i>"Sweet Sixteen"</i> JATORRIZKO IZENA</p>	
ZUZENDARIA <p style="text-align: center;">Ken Loach</p>	GAIA <p style="text-align: center;">Aukeren berdintasuna eta hezkidetzaz</p>
SINOPSISIA <p>Liamek egun gutxi barru hamasei urte beteko ditu. Kartzelan dagoen bere ama Jean ospakizunerako kalean egongo da. Liamek inoiz izan ez duen familia bizitzarekin amets egiten du, hau da, arreba Chantelle, ama Jean eta berarentzako toki segurua, bere amaren mutil lagun den Stan eta bere aitona bezelako gizon zeken batetik urrun dagoena. Horretarako dirua lortu beharko du lehenik.</p>	
OHARRAK <ul style="list-style-type: none"> - Filmean agertzen diren kontzeptu eta balioak aipatu: nerabezaroa, marginazioa, drogak, delinkuentzia... - Pertsonai nagusia den Liam, mugitzen duten sentimendu eta printzipio etikoak baloratu eta istorioan zehar jasaten duten garapena eta bere lagun eta familikideekin dituen harremanak aztertu - Liamen familiak zein lagunek jasaten dituzten bizi egoera latzak kontutan hartu et agure gertuko errealtatearekin alderatu - Filmean deskribatzen den egungo eskoziar gizarte klase baxuaren ezaugarri nagusiak (gizarte antolamendua, bizitza ohiturak, kultura, lana, hiri eta herrien arteko aldea...) adierazi. 	



IZENA <p style="text-align: center;">Fucking Åmål</p> <p style="text-align: right;"><i>"Fucking Åmål"</i> JATORRIZKO IZENA</p>	
ZUZENDARIA <p style="text-align: center;">Lukas Moodysson</p>	GAIA <p>Bakardadea Aukeren berdintasuna eta hezkidetzaz Heziketa afectivo sexuala</p>
SINOPSISIA <p>Amal Suediako hiri lasai eta aspergarria da. Agnesek laister beteko ditu hamasei urte, ez du lagunik eta institutuko neskarik ezagunena den Elinekin isilean maitemindurik dago. Bere urtebetetze egunean Elinek apustu bat dela eta ezpainetan muxu emango dio Agnesi, hala ere, muxu horrek zerbait sentiarazi egin diola onartuko du laister.</p>	
OHARRAK <ul style="list-style-type: none"> - Filmean agertzen diren kontzeptu eta balioen gaineko eztabaida egin: aukera sexuala egiteko askatasuna, tolerantzia eza, aurreiritziak, gelakideekiko harremana, gurasoekiko harremana... - Pertsonaien irudikapena egin: bakoitzak garatzen dituen sentimendu, pentsamendu eta akzioak adierazi.. - Pelikulak nola jarraituko lukeen adierazi modu idatzian. Pertsonai eta egoera berriak gehitu daitezke betiere bi pertsonai nagusien gogoei eutsiz. 	

<p>IZENA</p> <p>Quiero ser como Beckham</p> <p style="text-align: right;"><i>"Bend it like Beckham"</i> JATORRIZKO IZENA</p>	
<p>ZUZENDARIA</p> <p>Gurinder Chadha</p>	<p>GAIA</p> <p>Aukeren berdintasuna eta hezkidetza Kultuarterkotasuna</p>
<p>SINOPSIA</p> <p>Jess, pakistandar jatorriko neska, tradizioak jarraitzeko eta senar egoki bat bilatzeko bere familiaren presiopean bizi da. Berak ordea beste amets bat du: futbol jokalaria izatea. Jules lagunari esker nesken futbol talde batean hasiko da eta txapelketetan aritzeko aukera izango du. Egoera honek bere familiarekin liskar bat edukitzera eramango du, haien ustetan neska hindu batek ezin baitu kirol honetan aritu.</p>	
<p>OHARRAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Filmean agertzen diren bi pertsonai nagusien irudikapena egin. Heroizat hartuko lituzkete? Nola definituko litzateke neska heroi bat? Neskak pertsonai nagusiak diren beste filmerik ezagutzen al dute? Zuzendariak bi neskak elkarrekin dauden nola irudikatzen dituen aztertu. - Bi neskek euren ametsa lortzeko zein oztopo gainditu behar dituzte? Filmearen gaia Jules eta Jessek euren bizi proiektua aurrera ateratzeko dituzten oztopo sozialak gainditzeko beharrezkoa duten borondatea da. Oztopo hauek aurreiritzi sexisten gainean eraikirik daude eta ez ordea adinen izaera edo izaera kulturean. Zergatik euren familiak bi neskek futbolearen kontrako agertzen dira? Euren lagun neska zein mutilak, euren alde agertzen dira? erraza egiten al zaie futbolari zergatik aukeratu duten azaltzea? - Bi pertsonaien bizitza gure gizarteko eredu da edota inspiratu gaitzkeen eredu batean datza? Filmearen amaiera, amaiera zoriantsua dela esan daiteke: euren familien oniritzia lortzeaz gain, bi neskek Estatu Batuetan futbolearen modu profesionalean aritzeko beka lortzen dute. Gure herri/hirian neska futbol talde profesionalik al dago? Neska den futbol jokalariren baten izena ezagutzen duzu? Eta elitezkoak irolari neskaren bateana? Zergatik ezagutzen ditugu horren gutxi? 	



IZENA	
El Bola	
JATORRIZKO IZENA	
ZUZENDARIA	GAIA
Achero Mañas	Lagun taldea eta famili zailtasunak
SINOPSISIA	
<p>El Bola famili giro bortitzean bizi den hamabi urteko haurra da. Aitak fisiko zein psikologikoak diren tratu txarrak ematen dizkio eta berak lotsaturik, familiako egoera ezkututzen du. Egoera horrek bere gelako haurrekiko komunikazio eta harremanetarako mugatzen du. Alfredo klasekide berriaren etorrerarekin, adiskidetasuna eta berearekiko ezberdina den famili egoera berri bat aurkituko ditu. Alfredo eta bere gurasoen laguntzarekin bere egoera onartu eta honi aurre egiteko gai izango da.</p>	
OHARRAK	
<ul style="list-style-type: none"> - Filmean agertze n diren kontzeptu eta baloreak komentatu eta aztertu: laguntasuna, solidaritatea, adorea, norberaren ideia eta usteen defendatzea... - Gure gizartean gertatzen diren tratu txar kasuen ezagutzea; zergaitiak eta ondorioak ezagutzea, horiek saihestu eta salatzeko gure eskura ditugun mekanismo legal eta sozialak baloratzea. - Hiri handietako kanpoko auzoek eta bertan aurki ditzakegun famili eta eskoletako ezaugarriak bertako haurren izaerarengan duten eragina aztertu - Pentsatzeko modua, ideia eta bizi duten garapenaren araberrako filmean agertzen diren pertsonaien sailkapena egin. Bakoitzari dagozkion ezaugarriak aztertu eta filmean duten garapenaren euren usteak, motibazioak eta beldurrak azpimarratu - Gizon eta emakumeen izaeraren garapenean haurtzaroak eta nerabezeroak duten garrantzia baloratu. 	



IZENA <p style="text-align: center;">Semillas de rencor</p> <p style="text-align: right;"><i>"Higher Learning"</i> JATORRIZKO IZENA</p>	
ZUZENDARIA <p style="text-align: center;">John Singleton</p>	GAIA <p style="text-align: center;">Talde presioa</p>
SINOPSISIA <p>Columbus unibertsitate ospetsua ez da uste den jakintzaren tenplua. Filmean hala dio: 16.000 ikasle, 33 naziotasun, 6 arraza, 2 sexu, kanpus 1. iritsi berri diren hiru gazte euren lehen unibertsitate urtean eztanda egitera doan egoera batena urrean daude. Nazismoak, lesbianismoak, indarkeriak, arrazakeriak, geletan gorrotoa areagotzen dute eta unibertsitatea zelai beteko bataila bilakatzen du.</p>	
OHARRAK <ul style="list-style-type: none"> - Filmeak azaltzen dituen harreman mota ezberdinak aztertu: gazteen artekoa, gazte eta helduen artekoak. Pertsonaietako bakoitza agertzen den egoera aipatu. - Agertzen diren gazte talde ezberdinak identifiatu et atalde bakoitzaren ezaugarriak definitu: arauak, sarrera erritoak... - Filmean lider jakin baten irudia antzeman dezakegu, zein lider mota da? Lider horren alderdi positibo eta negatiboak aipatu. Liderrak berak dituen baloreak aztertu. - Hainbat eszenatan talde presioaren egoera antzeman daiteke. Egoera hauek zeintzuk direna zaldu eta egoera mota hauen ezaugarriak atera. - Erabakien hartzea: Une jakin batean pertsonai batek erabaki bat hartu behar du, zein pauso jarraitzen ditu? 	



IZENA El indomable Will Hunting <i>"Good Will Hunting"</i> JATORRIZKO IZENA	
ZUZENDARIA Gus Van Sant	GAIA Aukeren berdintasuna eta hezkidetzak Lagunartea, taldeko rolen banaketa
SINOPSISIA Will Huntingek 20 urte ditu eta unibertsitate batetako korridoreak garbituz lan egiten du. Bostoneko kanpoko auzoetan ematen du bere aisialdi denbora bere lagunekin batera. Euerkin eroso sentitzen da eta kalean dagoen bitartean bere izaera oldarkorra erakus dezake. Baina izaera inkonformista horren atzeran beste Will bat izkutatzen da, bere talentua harrokeriaz alferrik galtzen duen matematikaren jenio gazte bat. Bere izaera errebeldea eta bere inteligentzia miresgarriak sortarazten duen liluraren artean sortzen den gatazkak, euren bizitzetan garrantzitsuak izango diren erabakiak hartzera bultzatzen ditu Will zein bere ingurukoak.	
OHARRAK <ul style="list-style-type: none"> - Talentu zaparteko (superdotado) zere san nahi duen azaltzea. Gizakion artean ezaugarri ezberdin bezala dituen arrisku eta etekinak zeintzuk diren azaldu. Talentuz apartekoa izanagatik, gai jakin batera bideratu beharko litzateke garun gaitasuna? - Filme pertsonai garrantzitsuenak adierazi eta euren izaera eta baloreak deskribatu. Pertsonai bakoitzak filmean betetzen duen paparekin lotu, Zergatik du Will-ek bere buruarekin gatazka hori? Zeinek laguntzen du Will bere emozio egoerarekin? Nola hartzen du Will-ek ñaguntza hori? Zeinen iritzia estimatzen ditu Will-ek? Denek gauza bera esaten diote edo bere bizitzaren esparru ezberdinengan eragina sortzen saiatzen dira? - Pertsonai nagusia eta bere egoera hoberen deskribatzen dituen filmeko pasarteak aukeratu (elkarrizketa, eszena jakinak). Analisi orokor eta tekniko bat egin (antzezleriaren lana, gidoiaren garrantzia, argazkilaritzaren, musikaren, kameraren... garrantzia) - Filmeak hainbat gatazka planteatzen ditu. Zein da filmearen mezua? Filmean agertzen diren gatazka erreal eta sinesgarriak iruditzen zaizkigu hala gure errealitateaz gaindiko beste mundu batekoak dira? - Bizitzeko ohitura eta auzoei erreparatuz, nolakoa da Willen auzoa? Bere etxe barrua azaltzen da edota inguruko parke eta gune irekiak? Bestalde, non bizi d abere lagun Skylar? Bere etxe zeina uzoko esparruak irudikatzen dira? Bi auzoak alderatuz zeinek ematen diegu erosotasun sentazio gehien? 	



IZENA <p style="text-align: center;">Ciudad de Dios</p> <p style="text-align: right;"><i>"Cidade de Deus"</i> JATORRIZKO IZENA</p>	
ZUZENDARIA <p style="text-align: center;">Fernando Meirelles y Kátia Lund</p>	GAIA <p style="text-align: center;">Aukeren berdintasuna</p>
SINOPSIA <p>Cidade de Deus, Paulo Lins idazlearen nobelaren egokitzapena da. Bertan, 60. hamarkadaren amaiera eta 80. hamarkadaren hasiera artean Rio De Janeiroko Cidade de Deus auzo txiroko antolaturiko krimenaren sorrera eta hazitea irudikatzen da. Istorio honen pertsonai nagusia eta aldi berean narratzailea, delikuentzia eta bizitza kriminalean aritzeko ahul eta lotsatiegia den baina komunikabideetarako argazkilaria bezala lan egin eta arrakasta lortzeko talentu adina duen Buscapé gazte beltza da. Bere begien bidez, hainbat pertsonairen borroka, maitasuna eta garapena ikusiko ditugu eta baita denboraren poderioz urundu eta hurbiltzen den eta arma, droga eta indarkeriari loturiko euren etorkizuna ere.</p>	
OHARRAK <ul style="list-style-type: none"> - Filmean ager idiren hainbat gaien inguruko eztabaida egin: haur eta nerabeek "favelan" duten egoera, hirugarren mundukoak diren herrialde askok sufritzen duten miseria eta azpigarapena, indarkeriaren onarpena, narkotrafikoa, antolaturiko krimenaren sorrera, poliziaren korrupzioa. Alderdi hauen guztien arteko lotura egin. - Argi ezberdindurik dauden 60, 70 eta 80. hamarkadetako une historikoetan giroturiko filmearen egitura narratiboa aztertu eta baloratu argumentuaren arloari zein arlo formalari dagokionez. Amaieraraino elkar harremantzen eta lotzen diren pertsonai zein istorioek duten egiturari erreparatu. - "Favelan" mundua irudikatzeko erabiltzen diren baliabideak aztertu. (Kameraren mugimenduak, musika, argiztapena, kameraren enkoadraketak, muntaiaren erritmoa...). - Pertsonai nagusiak aztertu eta filmearen garapenaren arabera euren jarrera, beldur, motibazioak, usteak edota kezka ezak adierazi. - Brasilgo "favelan" zein beste herrialde pobreetako egoerak aztertu. - Filmearen agertzen diren indarkearia motak aztertu: kulturala, egiturazko zein fisikoa eta elkarren artean zein harreman duten. 	

BESTE FILME INETERESGARRI BATZUK


Filmea	Jatorrizko izena	Zuzendaria	Gaia
<i>Oriente es oriente</i>	<i>East is east</i>	<i>d. o'donnell</i>	<i>Aukeren berdintasuna</i>
<i>Eduardo Manostijeras</i>	<i>Edward Scissorhands</i>	<i>t.burton</i>	<i>Bakardadea</i>
<i>Rebelde sin causa</i>	<i>Rebel Without A Cause</i>	<i>n. ray</i>	<i>Errebelde izatea - Bakardadea</i>
<i>The wonders</i>	<i>That Thing You Do</i>	<i>Tom Hanks</i>	
<i>Rebeldes</i>	<i>The Outsiders</i>	<i>f.f.coppola</i>	
<i>Krampack</i>	<i>krampack</i>	<i>c. gay</i>	
<i>La vida de Jesus</i>	<i>La vie de Jésus</i>	<i>b. dumont</i>	<i>Gazteen delinkuentzia</i>
<i>El Odio</i>	<i>LA HAINE</i>	<i>m.kassovits</i>	
<i>Cuenta conmigo</i>	<i>Stand by me</i>	<i>r. reiner</i>	
<i>La escurridiza o como esquivar el amor</i>	<i>L'esquive</i>	<i>Abdellatif Kechiche</i>	
<i>Las alas de la vida</i>	<i>Lilja 4ever</i>	<i>Lukas Moodysson</i>	<i>Gazteen prostituzioa</i>
<i>Requiem por un sueño</i>	<i>Requiem for a dream</i>	<i>Darren Aronofsky</i>	<i>Drogen kontsumoa</i>
<i>American Beauty</i>	<i>American beauty</i>	<i>Sam Mendes</i>	
<i>Spun</i>	<i>Spun</i>	<i>Jonas Akerlund</i>	
<i>Las reglas del juego</i>	<i>The Rules of Attraction</i>	<i>Roger Avary</i>	
<i>Trainspotting</i>	<i>Trainspotting</i>	<i>Danny Boyle</i>	<i>Drogen kontsumoa</i>
<i>Thirteen</i>	<i>Thirteen</i>	<i>Catherine Hardwicke</i>	<i>Drogen kontsumoa</i>
<i>7 virgenes</i>		<i>Alberto Rodríguez</i>	<i>Gazteen delikuentzia</i>
<i>"El señor de las moscas"</i>	<i>Lord of the flies</i>	<i>Harry Hook</i>	<i>Rolen banaketa</i>
<i>"Africa"</i>		<i>Alfonso Ungría</i>	
<i>"El club de los poetas muertos"</i>	<i>"Dead Poets Society</i>	<i>Peter Weir</i>	<i>Talde atxikimendua</i>
<i>"La Juani"</i>		<i>Bigas Luna</i>	
<i>Los chicos del barrio</i>		<i>John Sigleton</i>	
<i>Glue</i>		<i>Alexis Dos Santos</i>	
<i>Kids</i>	<i>Kids</i>	<i>Larry Clark</i>	
<i>Bully</i>	<i>Bully</i>	<i>Larry Clark</i>	





<i>Perversion</i>	<i>Ken Park</i>	<i>Larry Clark</i>	
<i>El regreso a las cavernas</i>	<i>The caverman</i>	<i>Larry Clark</i>	
<i>Al final del Edén</i>	<i>Another day in Paradise. Kids 2</i>	<i>Larry Clark</i>	
<i>Wassup Rockers.Los nuevos guerreros</i>	<i>Wassup Rockers</i>	<i>Larry Clark</i>	<i>Talde atxikimendua</i>
<i>Quadrophenia</i>		<i>Franc Roddam</i>	<i>Talde atxikimendua</i>
<i>27 horas</i>		<i>Montxo Armendariz</i>	
<i>Coach carter</i>		<i>Thomas Carter</i>	
<i>La vida en juego</i>		<i>Phil Joanou</i>	
<i>Fresh</i>		<i>Boaz Yakin</i>	
<i>Mentes peligrosas</i>		<i>John N. Smith</i>	
<i>Historias del Kronen</i>		<i>Montxo Armendariz</i>	
<i>Guerreros de antaño</i>		<i>Lee Tomahori</i>	
<i>American history X</i>		<i>Tony Kaye</i>	
<i>Hurricane streets</i>		<i>Morgan Freeman</i>	
<i>Las mujeres de verdad tienen curvas</i>		<i>Patricia Cardoso</i>	
<i>Elephant</i>		<i>Gus Van Sant</i>	
<i>La ley de la calle</i>		<i>Francis Ford Coppola</i>	
<i>Bailame el agua</i>		<i>Josetxo San mateo</i>	
<i>Secretos y mentiras</i>		<i>Mike Leigh</i>	
<i>Radio favela</i>		<i>Helvecio Ratton</i>	
<i>El club de los 5</i>		<i>John Hughes</i>	

TALDE PROZESUETARAKO EBALUAKETA FITXA TRESNA

LORPENEN EBALUAKETA

1. Ezartzen dituzten pertsona arteko harreman moten gaineko kontzientzia.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<p>Taldeko kideetatik bat bera ere ez da gai talde barruan dituzten harremanez kontzientzia hartzeko nahiz eta harreman horietako hainbat, taldekideren baten batentzako kaltegarria izan daitezkeen</p>								<p>Taldeko kideek euren artean dituzten harremanen ikuspegi garbia dute eta harreman onuragarriak, ez-onuragarriak direnetatik bereizten dituzte.</p>	

2. Gizarte harremanak ezartzeko gaitasun pertsonalen identifikazioa.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<p>Taldeko kideetatik bat berak ere gizarte harremanak ezartzeko bere gaitasun, abilezia eta potentzialtasunak identifikaturik ez ditu</p>								<p>Taldeko kideek gizarte harremanak ezartzeko bere gaitasun, abilezia eta potentzialtasunak identifikaturik dituzte</p>	

3.- Gizarte harremanak ezartzeko norberaren puntu ahulen identifikazioa.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
<p>Taldeko kideetatik bat berak ere gizarte harremanak ezartzeko bere puntu ahulak, defizitak... identifikaturik ez ditu</p>								<p>Taldeko kideek gizarte harremanak ezartzeko bere puntu ahulak, defizitak... identifikaturik dituzte</p>	

4.- Talde barruko pertsona arteko laguntza emozional maila.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Taldekideren baten zailtasun egoeratan elkarren artean ez dira laguntza emozional gisa ikusten. Talde barruko hainbat harreman ere tratatu txar emozionaltzat hartu daitezkeela esan daiteke.		*						Ohizkoa da beraien artean babes emozionala ematea, kideek behar izatean. Taldeak eutsi egiten du era egokian orientatzen du.	

5.- Materia/instrumental laguntza maila.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Ez diote elkarri laguntza materialik ematen (eskola objektuak, aisialdirakoak, arropa...) ezta elkarren artean egiten dituzten ekintza formaletarako ere (elkarrekin egiten dituzten talde kirolak, trebetasunak elkarri erakusteko, etxeko lanekin laguntzeko...)		*						Laguntza materiala ematen diote elkarri (eskola objektuak, aisialdirakoak, arropa...) eta elkarren artean egiten dituzten ekintza formaletarako biltzen dira (elkarrekin egiten dituzten talde kirolak, trebetasunak elkarri erakusteko, etxeko lanekin laguntzeko...)	

6.-Taldekideen artean ematen den laguntza eta jasotzen den laguntzaren arteko oreka.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Laguntza gutxi ematen diote elkarri edota taldekide bakarra da laguntza ematen duena		*						Elkarri laguntzen diote eta bakoitzak eman eta jasotzen duena orekaturik dago.	

7.- elkarrekin egiten dituzten ekintzen aniztasuna.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Elkarrekin "egoteaz" gaineko beste ekintzarik ez dute egiten.		*						Elkarrekin ekintzak maiz egiten dituzte, positiboak eta anitzak dira.	

8.- Taldekideen denbora egonkortasuna taldean.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Taldekideak maiz sartu eta irteten diren taldea da. Edota maiztasun handiz taldea hautsi eta berriz eraikitzen da. Gehienak urtebete baino gutxiago daramaten elkarrekin.		*						enboran indartutako taldea da. Taldekide gehienak bi urte baino gehiago daramate taldean.	

9.- Heterogeneitatea eta inguruneko beste taldeekin harremanetarako irekitasuna.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Beste taldeekin harremanik ez duen edota ezaugarri antzekoak dituen talde gutxirekin harremanak dituen talde itxia da.		*						Beste taldeekin harremanak dituen taldea da. Talde horiek anitzak dira.	

10.- Ingurukoak ez diren beste berdinekin harremanetan jartzeko taldearen abileziak.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Ezagunak ez diren taldeekin harremanetan jartzeko abileziari kez duen talde itxia da.		*						Ezezagunak diren taldeekin harremanetan jartzeko erraztasuna duen taldea da..	

11.- Talde presio eta morrontza maila.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Talde presio maila handia dago edota lidergo suntsitzailea. Taldeak erabateko morrontza jokabidea du.		*						Norbanakoen erabakiak eta autonomia onartzen eta errespetatzen dituen taldea da.	



12.- Taldekideen enpatiarako gaitasuna.									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Taldekide gehien artean besteen egoera eta beharrekin enpatizatzeko gaitasunik ez dago		*						Taldekide gehienak besteen beharrekiko sentiberak dira.	



Bibliografia

- Trabajo social con grupos: Fernández García-López Peláez. (2006)
- Psicología social: Morales-Huici. (2000)
- Juegos cooperativos y creativos: Garaigordobil-Landazábal. (2004)
- Inteligencia emocional. Aplicaciones educativas: Vallés Arándiga-Vallés Tortosa. (2.000)
- Técnicas de grupo. José Pedro Espada. (2005)
- Juegos de interacción para adolescentes, jóvenes y adultos. Klaus W. Vopel. (1997)
- La educación en la responsabilidad: Escámez-Gil. (2001)

Egileak

Pilar Azpeitia González
Oihana Galaradi Ogallar
Carlos Arguilea Azpiroz



Zubiurre 30, behea
20013 • Donostia
Telf. 943 32 67 84

www.gazteforum.net
gf@gazteforum.net

Hezi Zerb:
Nerabeekin lantzeko
24 talde dinamika

59

hezizerb
e l k a r t e a